

MENDAROZKETA

— ARABA / ÁLAVA —

Mendarozketa herria Arabako hiriburutik 12 km ingurura dago, iparralderantz, Zigoitiko udalerrian eta Zuiako koadrilarren barruan. Gasteiztik abiatuta, Bilborantz joko dugu, N-622 errepide nazionalik, eta N-624rako irteera hartuko dugu, Etxabarri Dibinarako bide-seinaleei jarraituz, A-3604 toki-errepidetik. Herri hori igaro ondoren, ipar-ekialdeko norabidean beste 2 km eginda iritsiko gara helmugara. Mendarozketa herri txikia da. Be-rari buruzko lehenengo aipamena, Jerónimo Aznar apezpiak egina, 1295. urtekoa da, eta Arabako Artxidiakonotzako bilerara hiru onuradun bidali zituela dio bertan.

Oso herrigune txikia izan arren, Ricardo Becerro de Bengoaak "gizon nabarien haztegi emankorra" dela dio, bertan "Inkisizioaren Ofizio Santuan" zuzendari aritu ziren hainbat pertsonaia itzaltsu jaio baitziren, hala nola Inkisizioaren kontseilu goreneko kide eta Iruñeko apezpiku hautetsia izan zen Juan Bautista Sáez de Arzamendi e Iñiguez de Buruaga (1635), Cuencan eta Toledo Inkisizioko fiskal jardun ondoren Palentziako apezpiku izango

La localidad de Mendarozketa se encuentra situada a unos 12 km, al norte de la capital alavesa. Pertenece al municipio de Zigoitia, y forma parte de la cuadrilla de Zuia. Para acercarnos a esta localidad partimos de Vitoria en dirección a Bilbao por la carretera nacional N-622. Se toma la salida hacia la nacional N-624, siguiendo las indicaciones hacia Etxabarri-Ibiña, por la carretera local A-3604. Una vez pasada esta localidad y continuando dirección noreste unos 2 km, se llega al destino. Es un pueblo pequeño, y la primera noticia que se tiene de él hace referencia a que, en 1295, envió tres beneficiados a la reunión del Arcedianato de Álava, según la información facilitada por el obispo Jerónimo Aznar.

A pesar de ser un pequeño núcleo, Ricardo Becerro de Bengoa lo califica como "pequeño rincón fecundo semillero de hombres distinguidos", y es que en él nacieron personajes ilustres que ocuparon cargos directivos en el "Santo Oficio de la Inquisición", como Juan Bautista Sáez de Arzamendi e Iñiguez de Buruaga (1635), Inquisidor del

Herriaren ikuspegia orokorra / Vista general del pueblo



zen Francisco Ochoa de Mendarózqueta y Arzamendi (1658); Konpostelako artxidiakono eta Palentziako dignitate Andrés Ochoa de Mendarózqueta (1669); Kanarietako inkisidore Juan Bautista Domingo Rodríguez de Buruaga (1685); Salamanako San Bartolome ikastetxe nagusiko kide Francisco Lorenzo Rodríguez de Buruaga (1694), eta Bartzelonako inkisidore eta Valladolideko Santa Cruz ikastetxe nagusiko kide Bernardo González de Retana (1702).

Consejo Supremo y Obispo electo de Pamplona; Francisco Ochoa de Mendarózqueta y Arzamendi (1658), Fiscal de la Inquisición en Cuenca y Toledo, y más tarde Obispo de Palencia; Andrés Ochoa de Mendarózqueta (1669), Arcediano de Compostela y Dignidad de Palencia; Juan Bautista Domingo Rodríguez de Buruaga (1685), Inquisidor de Canarias; Francisco Lorenzo Rodríguez de Buruaga (1694), Colegial Mayor de San Bartolomé de Salamanca; y Bernardo González de Retana (1702), Inquisidor de Barcelona y Colegial Mayor de Santa Cruz de Valladolid.

San Joan Ebanjelaria eliza / Iglesia de San Juan Evangelista

MUIINO BATEN GAINean DAGO, eta izkinetan eta kontrahormetan silarriak dituen harlangaitzezko eraikina da. Gurutze latindarraren formako oinplanoa du, bai eta hiru aldeko burualde poligonal, sako-

SITUADO SOBRE UNA LOMA, es un edificio realizado en mampostería, con sillares en las esquinas y en los contrafuertes. Presenta planta de cruz latina, con cabecera poligonal de tres lados, crucero de brazos poco



*Mendebaldeko
horma*

*Muro
occidental*



Barrualdeko arkua

Arco del interior

nera txikiko besoko gurutzadura eta bi zatiko nabea ere. Hori dena nerbio kurbatuz eta tertzeletez osaturiko gurutze-gangek –xvi. mendekoek– estaltzen dute.

Oraindik bertan dirauten Erdi Aroko hondarrak tenpluaren oinaldean daude. Han, pilastretan bermaturiko parpain-arku zorrotz bat dago. Bere argia nabearen zabalaren erdiaren neurrikoa da, eta antzina kanoi-ganga zorrotzaz estaliriko zatira –korua dagoen tokira– eramatzen du. Alboetako hormetan, bi aldeetan, bi arku formero bereizten dira, eta ebanjelioaren aldean, surrealdeko zatian hormari itsatsirik, ziurrenik Erdi Aroan egin zen pilare batzen hondarrak ere badaude. Nahiz eta dena kareztaturik egon, egikaritzean erabilitako harri urdinak ikusten uzten diguten zartatu batzuk daude. Mota horretako kareharri gogorra Erdi Aroko hondarrak gordetzen dituzten inguruiko beste tenplu batzuetan ere ageri da.

profundos y nave de dos tramos, todo ello cubierto con bóvedas de crucería del siglo XVI a base de combados y terceletes.

Es a los pies del templo donde encontramos los restos medievales que aún perduran. Se trata de un arco fajón apuntado, apoyado en pilastras, cuya luz mide casi la mitad que el ancho de la nave y que da acceso al tramo primitivo, cubierto con bóveda de cañón apuntado, donde se encuentra situado el coro. En los muros laterales, a ambos lados, se aprecian dos arcos formeros apuntados, y en el lado del evangelio, en el tramo anterior, adosado al muro, también hay restos de un pilar, posiblemente medieval. Aunque todo está encalado, hay algunos desconchones que nos permiten ver la piedra azulada que se ha utilizado en la ejecución, tipo de piedra caliza dura también presente en otros templos cercanos que conservan restos medievales.

Elizaren mendebaldeko horman, leihate txaranbeldu estu eta luzatu bat dago, kanpoaldean gezi-leiho bailitzan islatzen dena. Eraikinaren alde horretan, Erdi Aroko egitura zaharra, bi isurkiko teilatua eta, erlaitzaren azpian, harburu liso batzuk azaltzen dira.

Ipar-mendebaldean, tenpluari itsatsirik, gaur egun beirriztatzen ari den nabe baten hondarrak daude.

Hainbeste pertsonaia itzaltsuren jaioleku izan zen herri honek bere elizan dauka islatuta pertsonaiok hartu zuten estatusa. Zentzu horretan, Maria Sortzez Garbiaren kaperak aparteko aipua merezi du, bere sakristia eta guzti. Estilo barrokoko da, eta Juan Bautista de Arzamendik fundatu eta baliabidez hornitu zuen, 1691n.

Testua eta argazkiak: RHA

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 125; LABORDA YNEVA, J.; 2003, pp. 450-452; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 302-303; PORTILLA VITORIA, M. J., 1975, IV, pp. 520-521; SÁNCHEZ ZUFIAURRE, L., 2008d, pp. 212-215.

En el muro occidental de la iglesia hay un ventanal abocinado, estrecho y rasgado, que se refleja en el exterior como una aspillera. En esta parte del edificio se ve la antigua estructura medieval, el tejado con la vertiente a dos aguas y algunos canecillos lisos bajo el alero.

Al noroeste, adosada al templo, hay restos de una nave, actualmente en restauración.

Un pueblo que vio nacer a tantos personajes ilustres, ve reflejado en su iglesia el *status* que éstos alcanzaron, mereciendo especial mención la capilla de la Purísima, que posee sacristía propia. Es de estilo barroco y fue fundada y dotada en 1691 por don Juan Bautista de Arzamendi.

Texto y fotos: RHA